

GIZA ESKUBIDEEN ZUHAITZA

1.- Deskribapena

Giza eskubideak urratzen diren egoera batzuekin zuhaitz itxurako collage bat egitean datza.

2.- Helburuak

- Egunkariak erakusten dizkiguten alderdi positibo eta negatiboen aurrean jarrera kritikoa garatzea.
- Giza Eskubideak ezagutzea, eta errespetatzen diren ala ez aztertzea.

3.- Partaideak

8 eta 20 pertsona arteko talde bat.

Adina: 12 urtetik aurrera.

4.- Materiala:

Estraza-papera, kartoi meheak, kartelak, errotuladoreak, guraizeak, kola, egunkariak.

5.- Abiapuntuko arauak

Talde handia.

6.- Garapena

Hurrei Giza Eskubideen urratzeak jasotzen dituzten egunkari edo aldizkari-zatiak ekartzeko esango zaie.

Hurrek estraza-paperean zuhaitz handi bat marraztuko dute, eta zuhaitzaren adarretan etxetik ekarritako albisteak itsatsiko dituzte.

Albisteak itsatsi ondoren, zuhaitza horman esekiko da eta taldeak arretaz begiratuko dio.

Hurrek elkarri albisteei buruzko galderak egingo dizkiote: Zer esan nahi du argazki horrek? Zergatik aukeratu duzu?

7.- Ebaluazioa

Egunkari-zatiei buruzko azalpenak eman ondoren, haurrak egoera horien zergatiak aurkitzen saiatuko dira denen artean. Horrez gain, Giza Eskubideak urra ez daitezen irtenbideak proposatuko dituzte. Egoera horiek nola sentiarazten zaituzte? Hori gerta ez dadin zerbait egin dezakezuela uste al duzue?

8.- Iturria

Paccioletti, G eta del Felice, Celina. *Jugarse por la paz 2002* kanpaina.